



Influentzia | Elikadura | Komunitatea

**EROSKI-K "SOMOS INFLUENCIA 2026" BULTZATU DU,
'INFLUENCER'-AK, ELIKADURA ADITUAK ETA MARKA
ENBAXADOREAK BILTZEN DITUEN LEHENENGO TOPAKETA**

- "SOMOS INFLUENCIA 2026" ekitaldiak, lehenengoz elkartu ditu elikaduran espezializatutako eduki sortzaileak, 'influencer'-ak, 'infoodencer'-ak, marka enbaxadoreak eta EROSKIko profesionalak.
- GOe - Gastronomy Open Ecosystemen ospatu dute jardunaldia, Basque Culinary Centerrek bultzaturiko berrikuntza gastronomikorako nazioarteko hubean.
- Bertan, 'Infoodencers' dokumentalaren estreinaldia eta SOMOS 2026 sarien banaketa egin dute.

Elorrio, 2026ko irailaren 23a.- [EROSKI](#) SOMOS INFLUENCIA 2026 eguna ospatu du gaur; ekimen estrategiko bat, sortu dena elikaduraren, influentziaren eta komunitatearen arloan duen lidergoa indartzeko. GOe - Gastronomy Open Ecosystemen egin dute, Basque Culinary Centerrek bultzaturiko berrikuntza, prestakuntza, ekintzailetza eta ikerketa gastronomikorako nazioarteko hubean.

Topaketan, lehenengoz elkartu dira espazio berberean elikaduraren eta ohituren arloan espezializatuta dauden eduki sortzaileak eta *influencer*-ak, baita *infoodencer*-ak, marka enbaxadoreak eta EROSKIko profesionalak ere, zertarako eta gogoeta egiteko elikaduraren orainaldian eta etorkizunean influentziak izango duen garrantziari buruz.

Ekimenak ohiko ekitaldien formatua gainditu du, marka posizionamendurako plataforma bihurtu baita. Plataforma horretan, EROSKIren bereizgarri diren hiru indargune nagusi lotu dira: gizartean eragin positiboa duen eragile gisa egindako ibilbide historikoa, elikadura

arduratsua alderik lidergoa eta SOMOS markako enbaxadoreen komunitate sendoa, konpainiako profesionalak osatua.

Askotariko eragileek osaturiko komunitate plural bat ezagutarazi nahi du SOMOS INFLUENCIA 2026 ekimenak; hots, elikaduran, bizimoduan eta gastronomiaren dibulgazioan espezializatutako eduki sortaileak, marka enbaxadoreak eta EROSKIko profesionalak. Komunitate horrek elikadura kontzienteagoa eta hobe sustatzeko elkarrizketak eta jokabideak bultzatzeko gaitasuna du. Partaideei dagokienez, hor dira, besteak beste, (@boukie), Hoy Comemos Sano (@hoycomemosano), Pepe y Lucas (@pepeylucas), El Brasas (@el__brasas) eta Belen Roldan (@elhambredevir).

"Asmo jakin batekin jaio da SOMOS INFLUENCIA 2026 ekimena: aitorpena egitea ondo elikatzearen inguruan egunerokoan elkarrizketak sortzen eta ohitura berriak sustatzen dituztenei eta harreman estuagoa eraikitzen laguntzen dutenei. Topaketa honekin, balioan jarri nahi dugu gure SOMOS marka enbaxadoreen komunitatea, eta 'infofoodencer' esaten diegun adituekin eta eduki sortaile profesionalekin elkartu nahi dugu bera, zeren eta horiek egitasunean, hurbiltasunean eta balioetan oinarritzen baitute beren eragiteko manera", ziurtatu du **Ainhoa Oyarbide Mendietak, EROSKIren Marka eta Komunikazio arloko zuzendariak.**

'Infofoodencer' dokumentalaren estreinaldia eta SOMOS 2026 sarien banaketa

Jardunaldian, ekitaldi hauek izan dira: EROSKIko zuzendaritzaren harrera instituzionala, *Infofoodencers* dokumentalaren estreinaldi eksklusiboa eta joan den urte batean SOMOS komunitatearen jarduerari esker nagusiki lortu eta egin denaren aitorpena.

Saria banatzea topaketako unerik zentralenetako bat izan da: 21 aitorpen zenbait kategoriatan multzokatuta. Horien artean, *Engagementean geldiezinak, Aktiboenak, SOMOSeko jakintsuak, Komunitate espiritua* eta *Sormen xededuna*. Sarien bidez, asmoa da EROSKIren balioak ikusaraztea publikazio hobeen bitartez eta saridunak komunitate osorako erreferente bihurtzea.

Jardunaldiaz gainera, SOMOS INFLUENCIA 2026 ekimenaren helburua da elikadurari buruzko elkarrizketa sustatzea eta esparruan esparruko beren ekarpena nabarmentzea nori eta elikadura hobe, arduratsua eta eskuragarria lortzeko ohiturak eta kontsumo erabakiak sustatzen dituzten guztiei.

Era berean, SOMOS INFLUENCIA 2026 ekimenaren asmoa da publikoki aitortzea SOMOS komunitatearen ekarpena, jabetza sentimendua areagotzea eta markaren eta pertsonen arteko lotura indartzea.

Infoodencer proiektuaren gaineko informazio gehiago kontsulta daiteke honako lotura hauetan: <https://www.youtube.com/eroski> eta <https://www.eroski.es/infoodencers>.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste jarduera batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.